




Gizarte Hezkuntza

6. MODULUAREN GIDA

**GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO
ESKU HARTZEAK**



2024-25

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
MODULULUAREN GAITASUNAK ETA IKASKETA EMAITZAK	7
6. MODULUAREN EGITURA	8
MODULUAREN DIZIPLINARTEKO JARDUERA (MDJ)	9
KASUAREN METODOLOGIA.....	9
EGIN BEHARREKO LANAREN INGURUAN	9
MDJREN EBALUAZIOA (PROZESUA, IRIZPIDEAK ETA KALIFIKAZIOA).....	9
IRAKASGAIEN ZERRENDA: Bakoitzaren konpetentzia espezifikoak eta edukiak.....	11
WEB ORRIETARA ETA ALDIZKARIETARA ESTEKAK.....	18

AURKEZPENA

6. modulua titulazioaren hirugarren ikasturteko bigarren lauhilekoan zehar garatzen da, eta Gizarte Hezkuntzaren alor nagusietako batzuen esku-hartzean zentratzen da. Helburua horien ezagutzan sakontzea eta horietan profesionalki esku-hartzeko beharrezko tresna, trebetasun eta tekniketan sakontzea da. Hauek dira: Haurrak, Nerabeak, Gazteak eta Familia; Pertsona Helduak, Nagusiak eta Mendekoak, eta Beharrian handiko Testuinguruak. Horretarako, alor profesional horiek identifikatzen dituzten 3 derrigorrezko asignatura proposatzen dira. Horiek aukera emango diete ikasleei errealitate naturalekin kontaktuan jartzeko, horiek ezagutzeko, eta horien garapenean hartzen diren erabaki desberdinak aztertzeko. Prestakuntza hori aukerako asignatura batzuekin osatzen da, esku-hartze eremuen ezagutza eta analisisan sakontzeko edo berau handitzeko erabilgarri izango direnak. Eremu hori erabiliko dute ikasleek espezializazio ibilbideak osatuko dituzten aukerak egiteko (Minor). Ezartzen diren ezaugarriak betetzen dituztenean, tituluaren osagarrian jarriko dira. Ondoren, titulazioan eskaintzen diren eta modulu honetan hasten diren bi Minorrak aurkezten dira.

Gizarte Dinamizazioa eta Lan Komunitarioa

Minor hau 6. eta 7. moduluen artean banatzen da (3. eta 4. ikasturteak), eta helburua hezitzaileen prestakuntzan espezializazio eta osagarritasun maila bat ematea da, herritartasuna eraikitzeko eremuak egokitzeko antolakuntza komunitarioaren prozesuen inguruan, maila sinboliko batean, baina baita ere maila operatibo eta funtzional batean. Gizarte dinamizazio eta lan komunitarioko prozesuak helburu orokor hauek betetzera bideratuta egon behar dira:

1. Lurraldeko giza baliabideei balioa eta boterea ematea, eta herritarren prestakuntza hobetu eta gizarte ehundura dinamiko bat sortzeko bidea ematea.
2. Gobernatzea eta garapena sustatuko dituen gizarte egitura ahalbidetzea, betiere berdintasun eta parekidetasuna lantzen dituzten herritarren protagonismoaren mende.
3. Garapenerako ikuspegia mantentzea, askatasuna irabaztea, kulturen, erabakitze prozesuetan eta parte-hartzean aurrera egitea dela ulertuta.
4. Nortasun, kultura eta lurraldeko natur baliabideen ezaugarriak mantendu eta sustatzea.

Ikuspegi horretatik posible da ulertzea 6. modulua irakaskuntza/ikaskuntza prozesuan barne hartzen diren materia bien ekarpena.

“*Análisis crítico de los medios de comunicación social*” izeneko irakasgaiak gizarte hezitzailearen profil akademikoa eta profesionala osatzen laguntzen du; izan ere, gizarte komunikabideen ezagutza eta funtzionamenduan sakontzen du, eta gizarte ordezkartzen eraikuntzan bitartekari moduan duten eraginean. Komunikabideen mezuen aurrean autonomo izaten laguntzea eta horiek erabiltzen irakastea da asmoa, mezuek norbera erabiltzea saihesteko. “*Dinamización Social y Trabajo Comunitario*” izeneko Minorraren helburuak

elkartzen ditu, ulertzen baita herritarraren lana ez dela bere boterea delegatzea, baizik eta botere hori egikaritu eta garatzea. Zentzu horretan, komunikabideetako hezkuntza informazioa fabrikatzen dutenen, lehentasunak markatzen dituztenen eta irudi sozialak eraikitzen dituztenen eta beren mezuen hartzaileen arteko botere eta ezagutzaren desberdintasun handia kolokan jartzeko tresna da. Horrela, boterea hartutako audientziak eta herritartasun aktiboa ahalbidetzen dituzte.

Bere aldetik, *“Pedagogía del Tiempo Libre”* irakasgaiaren helburu nagusia zera da, ikasleak diseinu eta proiektuen egikaritzearekin lotutako gizarte eta hezkuntzako eskumen aktibo garatzea –esku-hartzearen aurretikoak-, aisialdiaren espazio eta denboraren testuinguruan. Arretaren fokua giza garapenean laguntzen duten ekimenen sustapenean zentratzen da, egunerokotasunean ditugun edo subjektiboak diren obligazioek betetzen ez diguten denbora horren heziketaren bidez. Lan komunitarioaren dimentsioa aisialdiak irakasgai horren helburuen barruan hartzen duen gizarte izaeran islatuta ikustenda, baita ikasleei ematen zaizkien egiteko enauek ere.

Minorraren gainerako irakasgaiak, 7. Moduluariko dagozkionak, hauek dira: *“Movimientos sociales contemporáneos”*; *“Psicología positiva y proyectos socioculturales”* eta *“La expresión corporal y motriz”*. 6. Moduluko biek inkomunean daukatena zera da: ekintza komunitarioaren ikuspegia, herritarren gaitasunak eta prestakuntza hobetzera begira eta gizarte ehundura dinamikoa sortzera begira.

Gizarte Inklusioa

Minor hori Gizarte Hezkuntzako 6. eta 7. moduluen zati da (*“Intervenciones Socioeducativas”* eta *“Desarrollo Profesional y Práctica Socioeducativa”*, hurrenez hurren). Graduaren esparruan hainbat puntu barne hartzea interesatzen zaigu, Minorraren bidez gure lanean fokalizatzeke.

Bizi garen gizartean desberdintasuna berezkoa da, eta balio bezala onartzen dugu. Edozein motako desberdintasunak (nazionalitatea, generoa, sexu joerak, jatorri kulturala, ideiak, desabantaila egoera, ezaugarri bereziak, garapen-arazoak, bizimodu desberdinak, jatorri geografikoa...) onartu eta errespetatu egin behar dira. Legeek, gizarte erabilerek, egitura sozial eta politikoei, osasun, kultur, ekonomi, hezkuntza eta bestelako baliabideak lortzeko bideek gizartean aktiboki parte hartu ahal izatea bermatu behar dute. Parte-hartze hori ez da soilik pertsona guztien eskubidea, erantzukizuna ere bada. Horrela, erakunde bidez herritar guztiengana zabaltzen da bizitza duina izateko aukera, modu egokian garatuz, behar bezalako prestakuntza jasoz, lanpostu bat lortzeko, gizartearen kide aktibo izateko; laburbilduz, eragiten diguten erabakietan aktiboki parte hartu ahal izateko.

Gizarte Hezkuntzaren ikuspuntutik, pertsona edo talde bakoitza sozializatzeak gizarte eta erakunde harremanen arloan lan egitea eskatzen du, pertsona desberdinekin harremanak sustatzea, sare sozialetan parte hartzea (familia, auzoa, lantokia...). Halaber, ezin dugu ahaztu pertsona bakoitzaren izaera ezin dela bere gizarte eta komunitate ikuspegitik banandu. Horregatik, esan dugunaren ikuspegi osagarriak pertsona bere gizarte ikuspegitik aztertzen lagunduko digu, hau da, kulturaren eta testuinguru historiko eta sozialaren aspekturik instituzionalenen bidez jasotako eraginak.

Halaber, Gizarte Hezkuntzaren aldetik funtsezkoa den aspektu bat ere aztertzen dugu: laneko ikuspegia edo profesionala. Lana sozializatzeko bidea eta gizarte talde baten parte izatera heltzeko bidea da. Horren bidez, pertsonak taldearen barruan jarduteko zentzua bila dezake, eta taldearen parte sentitzeko ere, gainerako gizarte esparruetan parte hartzeko aukerak lortzen dituen bitartean.

Guzti hori ondo baino hobeto gauzatzen da 6. moduluan, gizarte hezitzaileek gizartean modu profesionalean jarduten duten esparruetara hurbiltzen garenean, hori osatzen duten erakundeen bidez. Hurbilpen hori gauzatzeko, Gizarte inklusioaren Minorraren izenean, 2 irakasgai zehatz emango ditugu, titulazioaren 3. ikasturtean, bakoitza bere izaera espezifikoarekin:

“Educación para la Ciudadanía desde las Ciencias Sociales” irakasgaia. Honetan, inklusioa giza eskubideen defentsan oinarrituko da, eta helburua demokrazia denon ardura izan dadin lortzea izango da. Testuinguru horretan, helburua herritartasun aktibo, parte-hartzaile eta tolerantzia sustatzea izango da.

“Dinámica de Grupos en la Educación Socioeducativa” irakasgaiaren helburua hau da: etorkizuneko gizarte hezitzaileek taldeko prozesu eta teknikak ezagutzea, pertsonen bizitzaren edozein arlotan ekiteko gaitasuna berreskuratzen eta parte-hartze sozialerako aukerak handitzen lagunduko dieten tresna bezala.

7. moduluan *“Inserción Sociocomunitaria de las Personas con Discapacidad”*, *“Orientación para el Desarrollo Profesional y del empleo”* eta *“Dinámicas de Solidaridad Social y Sociedad Contemporánea”* irakasgaiak inklusioari buruzko ideia bera lantzen dute, hezkuntzara soilik mugatzen ez den etenik gabeko prozesu bezala; arlo guztietan lantzeko ideia tranbertsala da (lana, familia, gizarte...), parte hartze sozialerako aniztasunaren aurrean erantzun egokien amaierarik gabeko bilaketa dakarren prozesua.

6. moduluko irakasgaiak. Modulu honetan hiru enbor-irakasgai eta Minor bakoitzean bi irakasgai daude;

a) Enbor-irakasgai

Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea familian, haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan. Irakasgai horren helburua haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan familia arloko desorekek sortutako arazo nagusiak ezagutu eta aztertzea da, baita egoera horiei aurre egiteko instituzioek daukaten babes-sistema eta esku-hartze programa espezifikoak ere.

Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea talde kaltetuekin. Etorkizuneko gizarte hezitzaileei aukera emango die lan egingo duten testuinguru desberdinetako pertsonen garapen eta portaera ulertzeko, arrisku faktoreen balorazioa egiteko, eta orokorrean, planteatzen zaizkien hezkuntza arloko beharrezko erantzuna emateko. Ikasleek gizarte hezitzailearen lanean suertatzen diren beharrezko handiko testuinguruak ezagutzea nahi dugu, baita horietako bakoitzean lan egiteko tresna espezifikoak ere.

Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea pertsona helduekin, adinekoekin eta menpekoekin. Irakasgai horren helburua ikasleei gaur egungo gizartean dauden Pertsona Heldu, Pertsona Nagusi, eta Mendeko Pertsonen kontzeptuen gaineko azalpen bat aurkeztea da, eta era berean, talde horiekin gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea burutzeko tresna teoriko eta praktikoak ematea. Beren ezaugarri

eta beharrianak eta esku-hartzeko ikuspegi eta estrategiak ezagutu eta baloratzea proposatzen du. Horren garapenean, etengabeko prestakuntza prozesuak ahalbidetzeko eta pertsona horienganako arreta eta horien autonomian laguntzeko sare sozial eta hezkuntza sareen garrantzia azpimarratzen da.

b) “Gizarte dinamizazioa eta lan komunitarioa” izeneko minorrarekin erlazionatutakoak:

Análisis crítico de los Medios de Comunicación izeneko irakasgaiak gizarte hezitzailearen profil akademikoa eta profesionala osatzen laguntzen du; izan ere, gizarte komunikabideen ezagutza eta funtzionamenduan sakontzen du, eta gizarte ordezkarien eraikuntzaren bitartekari moduan duten eraginean. Eskumen mediatiko bat garatu nahi da, horrela ulertzen dena: herritarrei komunikabideekin eta informazioa ematen duten beste hornitzaile batzuekin modu eraginkorrean elkar eragiteko ezagutza, abilezia eta jarrera multzo bat. Halaber, pentsamendu kritikoa eta herritar aktiboen sozializatorako gaitasunak erelاندunahidira. (*irakasgaihaugaztelaniazbainoezda emango*).

Pedagogía del tiempo libre irakasgaiaren helburua zera da, ikasleak gizarte eta hezkuntzako proiektu diseinatu eta burutzearekin lotutako eskumen aktiboak garatzea, aisialdiaren testuinguruan. Lan komunitarioaren dimentsioa islatuta ikusten da ikasleak hurbileko eta ezaugarri soziokultural antzekoetako taldeen inguruko lanak egiten dituztenean. (*Irakasgai hau gaztelaniaz baino ez da emango*).

b) “Gizarte inklusioa” minorrarekin erlazionatutakoak

“Talde Dinamika Gizarte eta Hezkuntzako Esku-hartzea”. Gizarte inklusioa lortzeko herritartasun aktiboa sustatu beharra dagoen neurrian, irakasgai honek helburu hori izango du, eta ikasleak ikasiko du zein funtsezkoa den taldeen indarra, helburu hori lortzeko. Taldeek ekiteko gaitasuna eta beren bizitzako benetako eragileak –protagonistak- izateko gaitasuna berreskuratzen lagundu ahal diete pertsonari, segurtasuna eta errespetua eskainiz eta harreman sozialak egiten eta berregiteko ahalmenaren bidez. (*Irakasgai hau euskaraz baino ez da emango*).

“Herritartasunerako Hezkuntza Gizarte Zientzietan”. Irakasgai honetan gertaera soziala aztertzen da, beren dimentsio ezberdinetan eta espazio eta denbora eskala ezberdinetan, prestakuntza balioa eta balioetan hezteko daukan garrantzia kontuan hartuz. Funtzionamendu demokratikoaren osagai eta printzipioak, bere eboluzio prozesua eta erakunde publiko eta pribatuen sistema ulertzean datza; ikasle bakoitzaren harreman pertsonala baloratu, gatazken konponbide baketsua bilatzen laguntzeko. (*Irakasgai hau euskaraz baino ez da emango*).

Bestalde, modulu honen gaitasunak menderatzen diren edo ez ikusteko, egoera espezifikoak irudikatuko dira, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea hobetzeko proposamenak egin, aztertu eta interpretatu beharko direnak. Eta Diziplina arteko Jarduera Modular batean zehazten da (MDJ); idatzizko txosten bat egin eta ahoz defendatzea, moduluan landutako arloetako bateko benetako kasu batetik abiatuta. Ikerketak prozesuan hartutako erabakien analisia jaso behar du, eta modu argumentatu batean, berau hobetzeko aukerak proposatu.

MODULULUAREN GAITASUNAK, IKASKETA EMAITZAK eta ODS-ak

Gaitasunaren garapenak honakoa inplikatzen du: "Bizitza profesional eta/edo pertsonaleko arazo edota egoerei konponbidea bilatzeko zenbait egitura kognitibo, intelektual eta emozional mugiarazten dituen ikasketa zehatz bezain konplexua". Ikasketa-emaitez adierazten dute gaitasun horien lorpen-maila.

Kontuan izanda modulu honen barneko prestakuntza lana "Nola egin" kontzeptuarekin erlazionatutako gaitasunak garatzera bideratuta dagoela, horiek eta horiekin lotutako emaitzak hauek dira:

GAITASUNAK

- 6G1. Modulu honetan barne dauden esku-hartze arloen sare instituzionala, antolakuntzako eta hezkuntza mailakoa nolakoa den ulertzea, gizarte hezitzaileen funtzio profesionalak kokatuz (KO5, KO10*).¹
- 6G2. Modulu honen barruko lan arlo desberdinetan funtzionatzen duten diagnostiko, balorazio eta esku-hartzerako ereduak aztertzea (KO1, KO4, KO5*).
- 6G3. Esku-hartze egoerak identifikatzea, beharrianak antzemanaz eta gizarte eta hezkuntzako esku-hartzerako proposamen zehatz bat sortzeko lehentasunak emanez, irizpide etikoak eta deontologia profesionala jarraituz, eta generoaren dimentsioa kontuan izanez (KO1, KO2, KO3, KO4, KO5*, KO6, KO8*, KO9*).
- 6G4. Modulu hau osatzen duten arloetako bakoitzaren esku-hartzerako estrategiak erabiltzea, hausnarketa eta kritikarako jarrera batekin (KO1, KO2, KO3, KO4, KO5*, KO8*, KO9*).
- 6G5. Irizpide etikoen azterketa, haien arabera jokatu, haietaz baliatu eta gogoeta egin dezatela ekintzetan eta ekintzei buruz.
- 6G6. Ahoz eta jendeaurrean komunikatzea, modu ordenatuan eta parte-hartzea bultzatuz; galderei sakonki erantzunez ere. (KO8).
- 6G7. Behar bezala arrazoituta dauden txostenak idaztea, dagoeneko ezarrita dauden irizpide formalak erabiliz eta kasuei buruzko txostenen eskakizunak aintzathartuz (KO9).
- 6C8. Moduluaren ikasketarekin lotutako jarduera eta egitekoei dagokienez, jarrera aktibo eta erantzulea erakustea. (KO10)
- 6C9. Lan taldean eginiko rol inplizitu eta esplizituei buruzko hausnarketa; rol bakoitzari esleitutako zeregin eta lanen betetzeari buruz, erantzukizunaren eta etikaren ikuspegitik.

¹ KO siglek titulazioaren gaitasuna orokorreki egiten diete erreferentzia.

IKASKETA EMAITZAK

- Moduluan jasotako ezagutza praktiko eta teorikoak integratzea, landutako arlo bakoitzeko ikerketa bat eginez.
- Aurretik antzemandako beharrianei erantzuna emateko proiektu edo programak diseinatu, garatu eta ebaluatzea.
- Hezkuntza arloko proposamen eta baliabideei buruzko erabakiak hartzea.
- Esku-hartze profesionaleko proposamenak argumentatzea.
- Izaera profesionaleko proiektu eta ideiak ahoz eta idatziz azaltzea.
- MDJ lanari buruz idatzitako txostena aurkeztea, arau akademiko formalei jarraituz.
- Idatzizko txostena osotu, hausnarketa kritikoaren bidez, taldekideen arteko erabakien araberrako teoriaren azterketa bat eginez.

EHU Agenda 2030 ibilbide-orri bat da, UPV/EHUko unibertsitateen lana eta planetaren erronkak lerrotzea helburu duena. Modulu honetan, IKD i3ren bidez, GJHak hauek dira:

4. KALITATEZKO HEZKUNTZA

Guztionezko kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea

22. Bikaintasunerantz aurrera egiten duen eta hezkuntzarako sarbidearen berdintasuna bermatzen duen kalitatezko eskola inklusibo, bidezko eta berritzailea sustatzea

23. Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetzaren maila handiagoak lortzea gure ikastetxeetan

27. Bizikidetzaren eta giza eskubideen alorreko hezkuntza sustatzea (indarkeriarik eza, dibertsitatea eta elkartasuna)

5. GENERO BERDINTASUNA

Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahaldundzea

29. Balioen aldaketa sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko

31. Gurasotasun positiboa eta erantzunkidetasuna sustatzea

32. Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea eta genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta judiziala hobetzea. NBEren Populazioren Funtzari laguntzea, Indarkeria pairatzen duten Emakume eta Neskentzako Funtsezko Zerbitzuen Programa Bateratuan parte hartzeko (UNFPA-NBE)

8. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Guztionezko hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea

41. Lanerako kualifikazio eta birziklapena bultzatzea, enpresekin, unibertsitateekin eta lanbide-heziketako ikastetxeekin lankidetzaren estuan arituz, prestakuntza duala eta enpresa eta erakundetako praktikak bultzatuz

10. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea

54. Zahartze aktiboa eta belaunaldiarteko elkartasuna bultzatzea

- 55. Pertsonak zaintzeko zerbitzu publikoa optimizatzea, osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lotura estua sendotuz
- 56. Hirugarren Sektore Soziala sostengatzea
- 57. Boluntarioen lana bultzatzea
- 58. Immigrazioaren aldeko eta arrazakeria eta xenofobiaren kontrako Gizarte Ituna bultzatzea
- 59. Dibertsitate eta elkartasunaren kudeaketa positiboa, bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrean sortzen diren erroka berrien aurrean (immigrazioa, pertsona errefuxiatuak, erlijio-aniztasuna...)
- 60. Bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta

16. BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK

Garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta euren jarduerak eta kontuak azaltzen dituzten erakunde eraginkorrek eta inklusiboak sortzea maila guztietan

- 87. Bake eta bizikidetzaren kultura sustatzea, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta

- 90. Dibertsitate kulturalak eta arrazakeria zein xenofobiaren prebentzioak dituzten balio positiboez sentsibilizatzeko kanpainak bultzatzea

17. HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK

Garapen Jasangarrirako Mundu Aliantza inplementatzeko eta biziberritzeko tresnak sendotzea

- 99. Garapenerako lankidetzaren politika publikoen koherentzia eta instituzioen arteko koordinazioa bultzatzea


17+1. HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA

Hizkuntza eta kultura aniztasunaren bermea

- 6. Hizkuntza gutxiagotuen presentzia bermatu hedabide mota guztietan: idatzizkoak, ikus-entzunezkoak edota teknologia berrien alorrean garatutakoak.

6. MODULUAREN EGITURA

Moduluaren egiturak barne hartzen du, arestian aipatutako hiru enbor-ikasgai horien, minor bakoitzaren 2 irakasgaien eta MDJ delakoaren garapena, (Moduluaren Diziplina arteko Jarduera), ondorengo grafikoetan adierazten den bezala:



MODULUAREN DIZIPLINARTEKO JARDUERA (MDJ)

Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeko benetako kasu baten ikerketatik abiatutako txosten bat idaztean datza; modulu honetan landu den arloren batekoa. Ikerketak prozesuan protagonistek hartutako erabakien analisia eta balorazioa jaso behar du, eta modu argumentatu batean, beraz hobetzeko aukera bideragarriak proposatu.

Kasuaren Metodologia

Benetako egoerekin lan egiteko aukera ematen duen proposamen metodologikoa da. Ikasleak aukera dauka erakunde eta gizarte mailako errealitatean murgiltzeko, aztertzeko, ulertzeko eta ikasitako edo ikasi beharreko kontzeptuak aplikatzeko. Lan arloan ematen diren eta horiek aztertu eta konponbideak edo oinarritutako erabakiak emateko helburuarekin ikasgelara eramaten diren egoerak aurkezten dira. (Martínez, I., 2011)

Irakaskuntzako kasua pertsona edo erakunde batek bere historiaren une jakin batean bizi duen eta ikaskuntza bat dakarren egoera erreal baten azalpena da (erabaki bat hartzea, arazo bat konpontzea, eta abar). Ez da eduki teoriko batekiko loturarik ez duen historia, hezkuntza asmorik edo espazio eta denboraren testuingururik gabea; une jakin batean gertatutako arazo edo egoera bati buruzko kontakizuna da, konponbide bat behar duena, eta ikasleek, protagonistaren lekuan jarrita, hartu behar dutena. Horren zentzua da ikasleek gaitasunak landu ditzatela etorkizunean egingo duten praktika profesionalean emango diren arazo eta egoerei aurre egiteko.

Egin beharreko lanaren inguruan

MDJ derrigorrezkoa da, eta balioa akademikoa 5 ECTS kreditukoa da (taldeko ikasle bakoitzaren aldetik 110 lan ordu). Irakaskuntza egituraren barruan, konbinatu egiten dira talde bakoitzarekin egiten diren tutoretzak, klaseko lana eta ikasleen lan autonomoa. Saio presentzialak MDJren egutegian zehaztuko dira.

Egutegia egiteko talde txikietako 4 ikasleetako taldeak osatuko dira. MDJren euskarri metodologikoa hauxe izango da: irakasle bakoitza bi ikasle talderen tutorea izatea gutxienez. Horrek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren barruan laguntzeko funtzioa izango du.

Lehenengo astean kasuaren inguruko metodologi planteamenduak aurkeztuko dira eta MDJ kasu zehatza, eta baita ere, egin beharreko prestakuntzako jarduerak zehatzak, kronograma, aspektu formal eta edukiaren inguruko orientabideak aurkeztuko dira.

MDJren Ebaluazioa (prozesua, irizpideak eta kalifikazioa)

Gaitasunen bidezko irakaskuntza-ikasketa planteamenduan, beharrezkoa da gogoraraztea gaitasunen balorazioa eta lan baten menperatze mailaren adierazleen balorazioa ezin direla modu independentean egin. Izan ere, gaitasun kontzeptua modu integratuan ulertzen dugu: gaitasuna zeregin konplexu bat konpontzeko prozesua da. Beraz, ez ditugu gaitasunak ebaluatu behar, ikasketa prozesuaren kalitatea eta ikasleek (taldeek) egoera edo arazo bat konpontzeko

egindako produktuaren kalitatea baizik. Horretarako, informazio hori biltzea ahalbidetzen duten adierazleak erabiliko ditugu, ondoren horiek egiaztatze eta baloratzeko.

Azken finean, ebaluazioak **prestakuntzaren zati** izan behar duela uste dugu. Prozesuan zehar, bai ikasleek bai irakasleek (lankidetzan jardunez) adierazleak eta ebidentziak erabiliko dituzte lana nola gauzatu ikusteko. Era berean, ikasketen ahulguneak zehazteko eta horiek gainditzeko egin beharreko hausnarketa ezartzeko informazioa eskuratuko dugu. Modu horretan, ikasketak, ditugun zailtasunak eta horiei aurre egiteko moduak aztertuta, ikasketa prozesua indartuko dugu eta prestakuntza prozesu honetan funtsezkoak diren hainbat alderdi hautemango ditugu (horietako batzuk aurreikusitakoak).

Ondorioz, ebaluatu egingo dira, modulu honetarako proposatutako kasu baten ikerketari begira ikasleak egindako ekarpenen kalitatea. Horretarako, informazioa biltzea ahalbideratuko diguten adierazleez baliatuko gara, ondoren kontrastatu eta baloratu ahal izateko.

Hauek izango dira ebaluaziorako irizpide eta adierazleak:

<p>Txostenak edo idatzizko beste dokumentu mota batzuk</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Diziplina ezberdinetako informazio garrantzitsua jasotzen du. ▪ Idatzitako baieztapenak esparru teorikoetatik oinarritzen ditu ▪ Ideien koherentzia eta kohesioa du. ▪ Argi eta modu originalean ordenatzen eta azaltzen ditu kontzeptuen eta alderdi nagusien arteko harremanak, funtsezko arazoak egituratuz eta dokumentatuz. ▪ Txostena egoki aurkeztu du (aurkibidea, sarrera, garapena eta ondorioak). ▪ Ondorio propioak eta originalak ateratzen ditu, eta irakurleari begien bistakoa baino harago doan informazioa ematen dio. ▪ Idatzizko hizkera formala zuzen erabiltzen du. ▪ Bibliografia eta aipuak sistema estandarizatu bidez eginda aurkeztu ditu (APA).
<p>Ahozko aurkezpena</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gaia ulertzeko behar den informazioa ematen du, funtsezko alderdiak jasota. ▪ Ahozko azalpenetarako ematen diren denborak errespetatzen ditu. ▪ Azalpena egiten duenean, modu logikoan egituratzen eta ordenatzen ditu ideiak. ▪ Baliabide didaktikoak erabiltzen ditu azalpenean. ▪ Azalpenean erabiltzen duen hizkera zuzena da. ▪ Publikoaren arreta mantentzen du. ▪ Ahozko erregistro egokia erabiltzen du, ahots-tonu eta ahoskera ulergarriaz eta argiaz. ▪ Adierazkorra da, berezkoa, argia, eta gorputz-adierazpena baliatzen du. ▪ Erantzun zehatzak ematen dizkie ikaskideek edo irakasleek eta tutoreek egindako galderei. ▪ Enpatiaz entzuten ditu pertsonen egindako ekarpenak. ▪ Bere hitz egiteko modua publiko eta egoera ezberdinei egokitzen daki.

Behaketa gidak edo txantiloiak, ikasgelako talde-lanari eta parte-hartzeari buruzkoak	
Ikasgelan -taldean parte hartzea	Talde-lana
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Agindutako zereginak betetzen ditu esandako denboran. ▪ Motibazioa erakusten du. ▪ Inplikazio nabaria erakusten du ikasgaietan. ▪ Ikasgelako taldearekin partekatzen ditu bere galderak. ▪ Elkarrizketa sustatu eta besteen parte-hartzea errazten du. ▪ Modu aktiboan parte hartzen du lantaldearen elkarguneetan, eta informazioa, ezagutza eta esperientziak partekatzen ditu. ▪ Errutinazko jarduerak baztertu eta berritzaile izaten saiatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ideiak eman eta taldekideekin elkarlanean jarduten du. ▪ Ekimena eta lanerako sena ditu. ▪ Elkarlanean planifikatzen eta antolatzen ditu zereginak taldearen baitan. ▪ Denbora egoki kudeatzen du. ▪ Ardurak bere gain hartu eta bere lana koordinatzen daki. ▪ Taldearen saiota arazoak da. ▪ Lana eginda ekartzen du. ▪ Zenbait egoeratan sortutako gatazkak landu eta erabaki etikoak hartzen ditu. ▪ Informazio-iturri egokiak erabiltzen ditu. ▪ Bere jakintzatik eta esperientziatik ekarpena egiten dio talde-lanari. ▪ Garrantzizko galderak egiten ditu, ekimenez eta jakingura zientifikoz. ▪ Feedback eraikitzailea emateko eta hartzeko gaitasuna du eta elkarlana pizten laguntzen du; aintzat hartzen ditu ikaskideen ekarpenak

Erabiliko ditugun tresnak: Txostenak, Ahozko aurkezpena, Behaketa-txantiloiak.

Nota jartzeko sistema

Taldeko irakasle tutorearen ardura izango da MDJri nota jartzea; dena den, moduluko gainerako irakasleekin kontsultatu ahal izango du. Nahitaezkoa da MDJ egitea irakasgaien nota jasotzeko. Gidan zehaztutako urratsak errespetatzen dituzten MDJk bakarrik hartuko dira ontzat.

MDJk gehienez 1,5eko nota jasoko du. Nota hori irakasgaietan lortutakoei gehituko zaie.

Nota hori irakasgaiei gehitu ahal izateko, irakasgaiek gaituta egon beharko dute. MDJ gaituta ezean, irakasgaietan lortu ahal izango den gehienezko puntuazioa 8,5ekoa izango da.

MDJ-ko EBALUAZIOREN INGURUKO ASPEKTU GARRANTZITSUAK

- MDJ egitea beharrezkoa da irakasgaiak kalifikatu ahal izateko.
- Bakarrik ontzat hartuko dira eskatzen diren irizpide formal eta eduki aldekoak betetzen dituzten lanak.
- MDJren gehienezko nota 1,5 izango da, irakasgaietan lortutako notari gehituko zaiolarik.
- Nota hau irakasgaietara gehitu ahal izateko, horiek gaituta egon behar dira.
- **%20 baina gehiagoko MDJko tutorizazio saiota huts egiten duen ikasleak**, edo entregatu beharreko lanetan parte hartu ez duenak, horren inguruko azken ebaluazioa egin beharko du.
- **MDJko etengabeko ebaluazioari uko egin nahi dion ikasleak** bere uko egitea idatziz

aurkeztu beharko dio moduluko koordinatzaileari eta horretarako bederatzi asteko epea izango du lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita. Kasu honetan ikasleak azken ebaluazioa egin beharko du.

- **Azken ebaluazioa lan idatzi baten aurkezpenean eta ahozko defentsan oinarrituta egongo da.** Hau burutu beharko da, modulu hasieran aurkezten den kasuan oinarrituz, eta adierazitako irizpide formalei zein edukizkoei erantzunez. **Lan hori e-mailez bidali beharko zaio moduluko irakasleari errebisatu dezan, ahozko defentsa baino 10 egun lehenago.** Proba hau ohizko deialdiaren moduluko lehenengo azterketa baino aste bete arinago egingo da. Aurkezpenean, ikasle bakoitzak gehienez 30' izango ditu, laguntza moduan IKTak erabili ahal izango ditu, eta irakasle/ ebaluatzaileak egin ahalko dituen galderari erantzun beharko diete.
- **Plagioa:** Plagioaren susmoak txostena ez onartzea suposa dezake, eta beraz, MDJ ez gainditzea. Plagioari dagokionez, ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egina balitz bezala. Ikasleak zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada UPV/EHU ko Etika Akademikoari buruzko protokoloa beteko da. (<https://www.ehu.eus/documents/2100129/0/6.-+a%29++Protocolo+plagio+-+EUSK.pdf/9305b6c7-919a-97d4-aa66-8564fb728502>)

Moduluko Diziplinarteko jarduera (MDJ) egiteaz salbuestea

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute Moduluko Diziplinarteko Jarduera (MDJ) egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.
2. Graduako ikasleek MDJ egin beharko dute, baldin eta, gutxienez, modulu bateko hiru irakasgaietan matrikulatuta badaude. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute egin beharrik izango.
3. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke dituzten MDJ egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute MDJ.
4. MDJ egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10etik emango da, MDJren % 15 aplikatu gabe.

IRAKASGAIEN ZERRENDA:

